

**Aitzindaria izan da Euskal Sagardoa zigilua daraman sagardo bat bere markan sartzen**

**ZELAIA SAGARDETEGIAREN SAGARDOA  
AUKERATU DUTE EROSKIEN BEZEROEK, ETA  
AURTEN EUSKAL SAGARDOA JATORRI  
IZENAREKIN ESKAINIKO DUGU SELEQTIA MARKA  
PROPIOAN**

- Lehenengo aldiz, 75 kontsumitzailek parte hartu dute sagardo berri hori aukeratzeko prozesuan, eta kooperatibak ekainetik aurrera merkaturatuko du
- Iaz, Euskal Sagardoa Jatorri Izeneko 54.600 litro saldu zituen EROSKI k Euskal Autonomia Erkidegoan
- Basque Culinary Centerrek (BCC) egiaztatzen du marka propioko sagardo berriaren zaporea

Elorrio, 2019ko apirilaren 17a.-[EROSKI](#)ren bezeroek Zelaia Sagardotegia (Gipuzkoa) aukeratu dute marka propioko sagardo berria egin dezan. Euskal Sagardoa Jatorri Izenekoa da, eta kooperatibak EROSKI SELEQTIA gourmet markaren barrenean merkaturatuko du ekainetik aurrera. Lehenengo aldiz, Bizkaiko, Gipuzkoakoa eta Arabako 75 Bazkide-Bezerok parte hartu dute dastatze saioan. EROSKI k antolatu du ekitaldia, eta laguntzaile izan ditu Euskal Sagardoaren Kontseilu Arautzailea eta Basque Culinary Center (BCC).

Sagar mota bat baino gehiago erabili dute EROSKI SELEQTIA sagardo berria egiteko (mikatzak, gaziak eta gozoak), eta guztiak izan dira Gipuzkoako baserrietan bilduak. *"Oso harro gaude gu aukeratu gaituztelako EROSKIko kontsumitzaileek hainbeste estimatzen duten sagardoa egiteko. Jardunbide tradizionalak erabiliz, sagardo freskagarria egin dugu, sagarraren beraren izaera ez ezik, tonu zitriko arinak ere badituena. Oreatua eta atsegina da hurrengo urtebetean edateko", adierazi du Oihana Gainzerainek, Zelaia Sagardotegiko kideak.*

**Prozesu parte-hartzailearekin aukeratua**

Garai batean, ohikoa izaten zen zenbait sagardotegitako sagardoa dastatu eta bat aukeratzea gero botilan sartzeko eta salgai jartzeko. EROSKI k bereganatu egin du espiritu hori, eta prozesu parte-hartzaile bat jarri du abian bere sagardoa hautatzeko. *"Orain txotxa bihurtu da gastronomiari eta festari lotutako kulturaren*

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
Xurdana Fernandez

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA  
CONSEJEROS DEL NORTE**

Joana G. Landazabal  
Eduarne Izquierdo

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

*adierazle eta ikur, baina horren jatorria garai bateko 'probaketak' ziren; hau da, sagardoa erosi nahi zutenek dastatu egiten zuten bat eta bestea, gehien gustatu zitzaiena aukeratu eta botilan huraxe sartzeko eskatzen zieten sagardogileei", oroitarazi du Asun Bastidak, EROSKIren Tokiko Produktuen zuzendari komertzialak.*

Bi protagonista nagusi izan ditu prozesuak: parte hartu duten sagardotegiak eta kontsumitzaileak. Azken horien esku utzi da erabakia, eta haiek esan dute zein sagardo merkaturatu. Dastatze saioan parte hartzeko izena eman zuten Bazkide-Bezeroen artetik, 75 aukeratu ziren, 25 probintzia bakoitzetik. Beste eragile batzuek ere parte hartuko dute, adibidez kalitate ziurtagiriak ematen dituzten enpresek edo BCC-k berak, zeinak ezagutza zientifikoa eta teknologia modernoak eskaintzen dituzten produkturik onena lortzeko. Kontseilu Arautzailea ere funtsezkoa izan da prozesu horretan: hark zehaztu eta aukeratu du zein sagardorekin egingo zen dastatze saioa, trebakuntza ere eman diete dastatzaileei eta haiek gidatu dute sagardo bakoitza dastatu eta baloratzeko prozedura.

### **Euskal ekoizpen ehunaren aniztasuna babesteko apustua**

Euskal Sagardoa zigiluarekin egiaztatua dagoen kalitatezko sagardo bati bere marka jarri dion lehenengo banaketa katea izan da kooperatiba. Ekimen honekin, EROSKIk beste pauso bat egin du euskal ekoizpen ehunaren aniztasunaren alde. *"Iruditzen zaigu funtsezko elementua dela gure inguruko ekonomia, kultura eta paisaia laguntzeko eta horien iraunkortasuna bermatzeko. [Osasunaren eta Iraunkortasunaren arloan hartua dugun konpromisoak](#) garamatza ingurunearen garapen sozial eta ekonomikoa bultzatzera, eta, orobat, enplegua eta tokian tokiko aberastasuna sustatzera eta kultura gastronomikoa errespetatzera. Apustu hori aurrera eramateko garaietan, EROSKIk laguntza eta hurbiltasuna eskaintzen die nekazaritzako produktuak hornitzeaz arduratzen diren tokiko eragileei, eta eskaintza zabal eta askotarikoa egiteko erabakia hartu du; ondorioz, tokiko 2.000 ekoizle txikiren 20.000 produktu baino gehiago eskaintzen ditu",* azaldu Tokiko Produktuetarako zuzendari komertzialak.

Aurten hirugarren urtez merkaturatuko du Euskal Sagardoa Jatorri Izeneko sagardoa, eta iaz, adibidez, izendapen hori daraman sagardoaren 54.613 litro saldu zituen, hogeitau euskal hornitzaile ingururenak. Jatorri Izena duen sagardoa ez ezik, Euskal Herriko beste sagardo batzuk ere saldu ziren EROSKIren saltokietan 2018an: guztira, 842.850 litro.

Bere gourmet markaren pean merkaturatuko duen sagardo berriak behar bezala betetzen ditu Euskal Sagardoa Jatorri Izeneko zigiluak berezko dituen baldintza

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
Xurdana Fernandez

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

##### **CONSEJEROS DEL NORTE**

Joana G. Landazabal  
Edurne Izquierdo

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

guztiak; hau da, bertako sagarrekin egina dago eta kontrol fisiko-kimikoak eta organoleptikoak egiten zaizkio ENAC erakundeak baimendutako laborategietan.

### **Kalitatea, Basque Culinary Centerrek egiaztatua**

EROSKI SELEQTIA markarekin merkaturatzen diren produktu guztiak bezala, bere markako sagardo berria ere Basque Culinary Centerrek egiaztatu du; horretarako, dastaketak egin dituzte profesionalek, elikadura sentsozialen analisisan adituak direnek, Gastronomia Zientzien fakultateko irakasleek eta fakultatearen askotariko programetan partaide izaten diren sukaldari gonbidatuek. Era horretan, EROSKI bere matu egiten du bere goi mailako produktuen marka kalitate bikainekoa dela.

### **EROSKI SELEQTIAri buruz**

EROSKI SELEQTIAK kalitate goreneko elikagai sorta zabala biltzen du; sorta horretako produktuek lurrin eta zapore ezaugarri apartak dituzte, eta, gainera, oso itxura dotorea. Gaur egun, hogeita hamar Jatorri Izenetan (JI) eta Adierazpen Geografiko Babestutan (AGB) dauden 196 produktu ditu kooperatibak "gourmet" marka horretan, eta hainbat lekutatik iristen dira: Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Teruel, Alacant, Sevilla, Guadalajara eta Cuenca, Modena (Italia) eta Roquefort (Frantzia), besteak beste.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
Xurdana Fernandez

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

##### **CONSEJEROS DEL NORTE**

Joana G. Landazabal  
Edurne Izquierdo

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)